



Beñat Gaztelumendi
Bertsolaria

Iparraldeko estazioa

Exekutibo bat maleta beltzarekin eta bizkarra okertzeraino betetako bi motxila daramatzaten gazteak; emakume bat egunkaria irakurtzen andeneko burdinazko aulki izoztuan eta agure bat arkatza hartuta gurutzegramak egin eta egin koaderno urdin batean, disimuluan eta inor begira ez daukala ziurtatu ondoren azkeneko orriko emaitzak tar- teka begiratzuz. Hori da normaltasunaren itxura munduko bazter honetan. Eta erlojuetako orratzek aurrera egingo dute eta txartelak gainbegiratzeko mostradoreetan jendea gero eta gehiago hurbilduko zaio ilaran aurrean egokitu zaionari, gehia- go hurbiltzeak azkarrago joatea esan nahiko balu bezala. Tre- nak iritsi eta joan egingo dira eta titular tristeko egunkarien metak deseginez joango dira trenak eta orduak aurrera egin ahala.

Gaur arte. Gaur inauteriak dira Iparraldeko Estazioan ere; exekutiboaren gorbata ere mozturro bihurtu da gaur, eta postontziz, pelikanoz, poli- ziaz, apaizez, mojar, bakeroz, mexikarrez, indioz, preso- z eta beste hamaika mozturroz jantzitako gazteak pilatu dira Tolosara eramango dituen trenaren zain. Eta nire lehen mozturroaz pentsatzen hasi naiz; nola jantzi ginen “txo- riz”, txoriak eta hegaztiak be- reizten ez diren adin hartan; txantxangorriak eta putreak bil zitzakeen “txori” mozturro zabal hura nola jantzi ge- nuen; nola itsatsi genizkien paperezko lumak gure kami- seta zuriei eta nola ibili gi- nen Añorgan barrena desfile- an otsaileko haize izoztuak gure zintzilikarioak dantza- razten zizkigun bitartean. Erakustea ezkutatzeko modu bat dela ikasi genuen inaute- ri haietan.

Ez naiz akordatzan noiz hasi ote ginen mozturrotu be- harrean mozturroak jantzen. Beharbada urdinez eta arro- saz jantzteari utzi genion adin horretan izango zen, edo gure izena esan orduko gure gurasoen ofizioa esateari utzi genionean bestela. Mozturrotu edo mozturroa jantzi; azalaren barrutik mo- zturrotu, edo azalari paperez- ko lumak erantsi. Hortxe di-

ferentzia. Gogoan dut lehenengo desfile hartan nola haizeak eramane zituen gure paperezko lumak; nola kendu genizkion batak besteari zela apur batekin erantsitakoak. Inguruak esan- dakoa ginen orduan, ingurua zena ginen gu: Añorga, fabrika, Europa, Reala, mutilak edo neskak, pilota edo futbola. Geroxe- go hasi ginen izena soilik ginela esaten, bereizketek hor jarrai- tu arren.

Nor naizen jakin nahian nongoa naizen ezkutatzan, ustez- ko Beñat ezkertiar eta ameslaria europarra ere ez balitz bezala, zuria ere ez balitz bezala, gizona ere ez balitz be- zala. Nik hemen idazteak beste norbaitek ez duela idatzi- ko esan nahiko ez balu bezala. Erraza da boterea beste- gan ikustea, besteak seinalatzea, guk ere gure mikrofonotxorik, gure zutabetxorik, afalostean entzungo gaituen lagun kuadrillarik ez bagenu bezala.

Eta besteen mozturroei begi- ra jarri naiz; kuadrillako batzuek diote izan nahiko genukeen horretaz mozturro- tzen garela. Eta estaziora sartzen ikusten ditut exeku- tiboa eta polizia eta agente sekretua eta haien aldame- nean baita postontzia eta pelikanoa eta zakurra ere, eta zalantzan nago nork hautatzen dituen guk jant- zen ditugun mozturroak; ez ote garen mozturrotzen mo- zturroa jantzi aurretik ere. Mozturroa tximeleta izan au- rretik ere ez ote den txime- leta, eta tximeleta bilakatu ondoren ez ote den zomo- rro. Mozturro mozturrotuak edo mozturro mozturrotuak elkarren jantziei begira, oraindik ere elkarri paperez- ko lumak kentzen genizkien ume harrotu haiek bagina bezala.

Mundua ez baita estazio, mundua ez baita ez-leku. Bi- zi naizen lekuak markatu nau: paperezkoak ez diren lumak daramatzat zintzilik barruan ondo grapatuta; ize- na soilik esaten dudanean arren, diskurtsoak buruz ikasi ditudan arren. Ezkuta- tzea ez da erakusteko modu bat besterik, ordea. Moztur- rorik jantzen ez dudanean, zertaz mozturrotzen naiz? •



Ez dakit noiz hasi ginen mozturrotu beharrean mozturroak jantzen.

J. URBE | ARP